

IKASTETXEA	ASKATASUNA BHI		
IZENBURUA	Lurralde Ezezaguna	MAILA	DBH 1
IRAKASLEA	Irati Goikoetxea eta Joseba Lizeaga	IKASGAIA	Matematika

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

## TESTUA

### Lurralde ezezaguna

Sar gaitzen buru belarri kontinente zoragarri bezain bitxi honetan. 14.000.000 km<sup>2</sup> inguruko lur zati baten aurrean gaude, hau da, Australia bi halako edota Txina eta India batera hartuta bezain zabala da. Lurralde honetan ez dago ez arbolarik ez lorerik eta gizakia ez da bertan inoiz bizi izan, zientzialariak iritsi arte.

Hego Poloaren inguruan dago kokaturik eta beste kontinenteetatik erabat aldendurik dago. Hego Amerikako muturra 1.000 km-tara dago, Australia 2.5000 km-tara eta Hego Afrika 4.000 km-tara. Kontinente bikain honek Atlantiar, Bare eta Indiar ozeanoak ditu bere inguruan, eta hiruren artean Antartikar ozeanoa edo Hego ozeanoa osatzen dute.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, izotz-geruza iraunkor batek Antartikaren gainazalaren % 98 estaltzen du eta itsasoan ere sartzen da izotz-plataformak edo izotz-langak eratuz, hala nola, Ross, Ronne, Amery eta abar.



Ross eta Ronne izotz-plataformak kenduko bagenitu, Ross itsasoa eta Weddell itsasoa elkarrengandik 1.000 km inguruko distantziara bakarrik daudela ikusiko genuke, istmo edo lur-zerranda batez banandurik, zeinek Antartikako bi aldeak lotzen dituen: Mendebaldekoa edo Antartida Txikia eta Ekialdekoa edo Antartida Handia.

Lehenak, Mendebaldekoak, kontinente amerikarraren hegoaldean kokaturikoak, kosta-lerro bihurria dauka eta Antartikako penintsula eta Marie Byrd lurraldea hartzen ditu. Penintsulako mendiak, ikertzaile batzuen arabera, Andes amerikarren prozesu orogeniko berean eratu ziren. Bi mendilerroak itsaspeko mendikate batez daude loturik, zeinek indarrean

dauden sumendi batzuk baitituen Sandwich irletan. Mendikate beraren mendiak dira beste hauek ere: Hego Orkney irlak eta Hego Georgia.

Mendebaldeko Antartika honetan kontinenteko mendirik altuenak daude, hala nola, Vinson (4.897m), eta Tyree (4.723m) Elsworth mendietan.

Ekialdeko Antartika, ordea, nahiko zehazki egokitzen zaio Polo-zirkulu antartikoari eta Afrika, Asia eta Australiaren hegoaldean aurkitzen da. Kontinentearen bi heren hartzen ditu eta pixkanaka-pixkanaka Hego Polo aldera igotzen den goilautada zabal-zabal batez dago osaturik. Honek, harrigarria suerta badaiteke ere, Hego Australia eta Hego Afrikako lautaden ezaugarri geologiko antzekoak ditu.

Antartikaren alde honetako mendirik altuenak, adibidez, Fridjot Nansen (4.068m), Wade (4.083), Kirkpatrick (4.528) eta Markham (4.350) mendiak, Ross itsasoa inguratuz, Transantartikar izeneko mendikatean daude. Hau munduko mendilerro handienetako bat da, 5.000 km luze, Victoria lurraldetik (Ross itsasoan) Coats lurralderaino (Weddell itsasoan) luzatzen da, Ross izotz-plataforma goilautadatik bereiziz. Mendilerro honetan zehar goilautadan pilatutako izotza mantso-mantso jaisten da glaziar ugari eratuz, horiek dira Ross izotz-plataforma izotzez elikatzen dutenak. Horietako bat, Beardmore glaziarra hain zuzen, mendearen hasierako espedizioek goilautadarako bide gisa erabili zuten, Polorako ahaleginetan .

Mendilerro hori toki askotan izotzez ia erabat estalirik dago, oso tontor altu eta isolatu bakar batzuetan izan ezik, beren malda ia bertikaletan elurra ezin baita tinkotu. Eskimalen edo inuit-en hitz batez ezagutzen dira: '*nunatak*'. Izotz erdian dagoen harria adierazten du.

Antarktida. Jose Ignazio Abrisketa

<b>JATORRIA</b>	
EGILEA	Jose Ignacio Abrisketa
IZENBURUA	<i>ANTARTIDA</i> KONTINENTE MISTERIOTSU HORI
ARGITALETXEA/Webgunea	GAIAK
URTEA	1990
ORRIALDEA (K)	
ISBN	ISBN: 978-84-87203-11-4
<b>TESTU-MOTA</b>	
OINARRIA	Inprimakia
FORMATOA	MISTOA
MOTA	Deskribapena
ERABILERA	Publikoa

## **ESTRATEGIAK**

### **IRAKURRI BAINO LEHEN**

#### **1.-HELBURU OROKORRAK:**

Antartika kontinentearen benetako tamainaz jabetzea testuan dagoen informazioa erabiliz. Kontinente honetako ezaugarri geografikoen proportzioak ezagutu eta konparazioak burutzea. Testu zientifiko dibulgatibo bat ulertzea..

#### **2.- IRAKURRI AURRETIKO HIPOTESIAK**

Ikasleei esanen diegu dagoen irudiak eta izenburuak zer iradokitzen dien. Izenburu deigarria du eta "ezezagun" hitzak joko eman dezake. Testua irakurri aurretik, irudia aztertzeak arreta zentratu eta testuaren irakurketa erraz dezake.

#### **3.- AURRETIKO EZAGUPENAK AKTIBATU**

- a. Antartika kontinenteaz dituzten ezagutzak komentatu. Pentsatzekoa da ezagutza gutxi izango dituztela kontinente horri buruz.
- b. Matematikako edukiak: proportzioei, zenbaki handiei eta unitate aldaketei buruzko ezagutzak. Azalera unitateak:  $\text{km}^2$  eta  $\text{m}^2$ .  
Proportzionaltasun zuzena eta azalaren arteko proportzioak. Kontinenteen azalera desberdinak kalkulatu. Antartikara dauden distantzien proportzioak kalkulatu.
- c. Liburu dibulgatibo generoari buruzko ezaugarri nagusienak aipatu. Elementu deskriptiboak, testuari atxikitzeke formulak.

### **IRAKURRI BITARTEAN**

#### 4.- LEXIKOA LANTZEKO ESTRATEGIA MATERIALAK:

Gako diren hitzak azpimarratuko ditugu: istmo, prozesu orogeniko, ezaugarri geologiko, inuit, glaziarra, izotz-plataforma...

#### 5.- GAIA ETA IDEIA NAGUSIA IDENTIFIKATZEKO ESTRATEGIA MATERIALAK:

Oharrak hartu: Bazterretan irakurketari buruzko oharrak idatziko dituzte:

- a) Lehena. Tamainari dagokiona. Antartidaren azalera eman.
- b) Bigarrena. Ezaugarri geografikoak. Mendikateak zehaztu, izotz-plataformak zehaztu.

### **IRAKURRI ONDOREN**

#### 6.- BERRIZ IRAKURTZEA

Testua eta irudia erlazionatzeko, ikasleei testua testua berriz irakurtzea eskatuko diegu.

#### 7.- TESTUAREN EGITURAREN ESKEMA EGIN:

1. zatia: Azalera
2. zatia: Beste kontinenteetara dagoen distantzia
3. zatia: Antartikako izotza
4. zatia: Mendilerroen jatorria eta kokapena
5. zatia: Mendien eta izotzaren arteko lotura, harremana.